

16. Argazki Lehiaketako oinarriak

1.- Partehartzaileak:

Ganzabal Mendi Taldeko edozein bazkidek hartu ahal du parte lehiaketa honetan.

2.- Gaiak:

_ Mendia eta natura orokorrean.

3.-Lanen aurkezpena:

Gehienez argazki 2 aurkeztu ahal izango dira autore bakoitzeko.

Originalak argazki digitalean aurkeztu beharko dira, ondorengo baldintzak beteaz: Argazkien formatua kalitate handiko JPG izango da, 254 ppp-ko bereizmen eta 3000 x 3000 megapixel-eko tamainarekin gutxienez eta 3000 x 4000 megapixel-eko tamainarekin gehienez.

Argazki bildumarekin batera testu fitxero batean (DOC edo TXT formatoan), egilearen izena, parte hartzen den gaiaren izenburua, titulua eta non atera den jarri beharkoda. Argazkiak CD - DVD edo posta elektronikoz jasoko dira.

Argazki digitalak, Taldeko egoitzan entregatu edo ondorengo helbide elektronikora bidali ahal dira (argazkilehiaketa.ganzabal@gmail.com).

Hauen entregatzeko era edo formatoa edozein izanda, oso ondo identifikatuta egon beharko da.

Ez dira baliagarriak izango beste lehiaketa batean irabazleak suertatuko argazkiak.

4.- Onarpen epea:

Epea 2022ko urriaren 19an amaituko da. Epea luzaezina izango da.

5.- Sariak:

- 2023ko Egutegia:

12 argazki izango dira sarituak, Ganzabal Mendi Taldeak 2023. urtean DIN A-3an orma egutegi bat egiteko erabiliko duena, salmentan jartzeko asmoz.

Aukeratutako argazki irabazle bakoitzak sari moduan egutegi bat jasoko du eta 20 € Ganzabal Mendi Taldeak 2023an egingo dituen ekintzengatik trukatzeko.

- Sari popularra:

Aurkeztutako argazki guztien artean, bat aukeratuko da Ganzabal Mendi Taldeak publikatuko duen 2023ko agendako portada izateko

Aukeratutako argazkia sari moduan egutegi bat jasoko du eta 50 € Ganzabal Mendi Taldeak 2023an egingo dituen ekintzengatik trukatzeko.

-Klubeko irteeren argazkia:

2021-2022 urtean Ganzabal Mendi Taldeko irteeraren batean ateratako argazkiak boto gehien duenak, sari moduan egutegi bat jasoko du eta 25 € Ganzabal Mendi Taldeak 2023an egingo dituen ekintzengatik trukatzeko.

6.- Epaimahaia:

Bozketan parte hartu nahi duten Ganzabal Mendi Taldeko bazkide guztiek osatuko dute epaimahaia. Bozketaren emaitza apelaezina izango da, eta, hala badagokio, zuzendaritza-taldeak erabakiko du gerta litekeen edozein gorabeherari buruz. Emaitza lokaleko iragarki-taulan eta Ganzabal Mendi Taldearen sare sozialetan argitaratuko da.

7.- Oharrak:

•Partehartzaileen ardura da erabat, aurkeztutako lanen gainean hirugarren batek eskubiderik ez izatea eta, era berean, irudi eskubideez egon daitezken erreklamazioei erantzutea. Hori bermatzeko, dokumentu bat sinatuko du.

- Antolatzaileek argazki paperera zehaztu gabe dagoen original kopurua pasatuko dute, egon daitezkeen erakusketetarako. Epaimahiaren balorazioaren ondorioz lortutako puntuazioa kontutan hartuko da handitik txikira.

- Aurkeztutako lan guztiak, Ganzabal Mendi Taldeak antolatutako edo zabaldutako ekintzetan erabili ahal izango dira; beti ere, egilearen izena aipatuz.

- Ganzabal Mendi Taldearen artxiborako geldituko dira lan sarituak.

- Lehiaketan parte hartzeak oinarriak erabat onartzen direla adierazten du.

- Ganzabal Mendi Taldeko zuzendaritza taldeak, jarritako baldintzekin bat ez datozen argazkiak alde batera utzi ahalko dituzte.

- Ganzabal Mendi Taldeko zuzendaritza taldeak, oinarri hauetan aurreikusten ez diren baldintzak, haien irizpideen arabera konpontzeko ahalmena izando dute.